

Nazkaren okupazioa

Duela bi asteko *Documentos TV*-ek, egungo Irak asaldatuan oro ez dela bonba erakusten zigun, jatorri estatubatuarrekoa oro har den enpresen multzoak, okupazio militarren babesean zer diru irabazten duen ikusten baikenuen. Nola irakiarren kapitala desbideratzen zen Texas aldera eta Texasako sozioen aldera, eta zenbateraino errentagarria egiten zitzairen herrialde arabiarrek bizi duen egoera kaotikoa.

Astelehenean, Cuatrokoek, Jon

Sistiagak AEBetako tropekin egun batzuk Iraken egin zituela eskaini zuten *prime-time*-an. *Sarjentu jauna, nora ari gara tiroka?* zuten izena kazetariaren erreportajeak. Basamortuan galdutako orratza jotzeko gai diren misilik omen dituen ejerzitoko soldaduen hitzak genituzke izenburukoak. AEBetako tanke baten tiroz Sistiagaren lankidea hiltzea gogoraziz, eta haien ezjakintasunaz trufatzen bezala, baina tartean hiltzen direnetaz barre egiten. Eta tartean hiltzen diren horiek, solda-



ekOGRAFIAK

ASIER SARASOLA

duak dira batzuetan (izenburuko galdera izuz beterik egin dezaketena), baina gehienez, arestian seinalatutako enpresen espolioa pairatzen duen irakiar herritarra da. Sunia eta xiita.

Soldaduen kanpamenduetan falta ez ziren hanburgesa jatetxetako langile nepaldarrak eta tailandiarrek ezagutzen genituen halaber. Lanesku merkea inondik ere. Milaka langile zegoela soldaduen zerbitzura Iraken aipatzen zuen Sistiagak, armadunak baino gehiago zirela, gainera. Etxetik aldegin behar izan zuten irakiarren etxebizitzetan atseden hartzen ageri zitzaizkigun soldaduek, patruilatzera atera ziren batean, eta balen aurkako txalekoa soinean

kontatzen zigun guztia kazetariak. Inoiz tirokatzen ez zuen Gaiztoari leihotik apuntatzen jartzen ziren halakoan soldaduek. Onak zirela eurak, Gaiztoak; besteak, Al Kaedako oro, hori aditzen genion instruktore bati. Noiztenka ematen ziren tiroketak itxaroten zituzten, adrenalina etengabe aipatuz. Baina *docu-reality*-en kontakizunarekin antzekoegia zen Sistiagaren lana. Hain zen informazio ez ziren iruzkin bortitzez bete.

Edonola, hauteskunde klabeen uler daitekeen kasualitatea, PSOE inguruko telebista bietan gaiarekin tematze hau. Batak zein besteak, irakiarren biziezina, okupazioari begiratuz azaltzeagatik, eta PP begipuntuan hartuta. Nazka.

Albistegietarako testu egokien bila

‘Euskarazko albistegietarako esku-liburua II’ argitaratu du Euskal Telebistak

URTZI URKIZU

Donostia

«Ez da irizpide politikorik ageri eta ez da estilo liburu bat», ohartarazi du Asier Larrinaga ETBko Euskaraz Zerbitzuko arduradunak. Euskal Telebistako albistegietan lan egiten duten kazetarietzat kontsultarako eta albisteak prestatzen laguntzeko tresna baliagarria da, dena den, orain gutxi argitaratu duten esku-liburua.

Ikus-entzunezko komunikaziorako lana da Larrinagak egindakoa, adibide ugaziz hornitua. Adibideetan aholkuak ematen dira, gaizki leudekeen esaldiak baztertuz. Gainera, aurkibide-laburpenak aholku guztiak laburbildu eta aholku bakoitzari dagokion orrialdea seinalatzen du.

Bost atalez osatuta dago *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II*. Honatx banan bana atalen edukietako batzuk:

1-Albiste-testuen ezaugarriak

Albiste-testuek hiru ezaugarritan erakusten dute beren-beregikoak direla albistegietarako. Lehenik, informazioa emateko erabiltzen dira. Bigarrenik, ahoz zabaltzen dira. Hirugarrenik, soinu eta irudiz laguntzen dira. Berria prestatzen amaitutakoan, kazetariak berriro irakurtzen du idatzitakoa, eta aretatuz egiaztatzen du testuak zer dioen, adierazte-arazoak detektatzeko: ezkutuko esangurak, datu okerrak, informazio-hutsuneak... Euskal Irrati Telebistan albisteak euskara batuan zabaltzen dira. Informazioa errazago ulertzen da esaldia modu aktiboan jartzen bada. Euskaraz egin daitezke

■ ETB-ren euskarazko albistegietarako eskuliburuaren aholku batzuk

Adibidea

Borrokek jarraitzen dute gaur Afganistan iparraldean.

Aholkua

Gaur ere borrokek gertatu dira Afganistan iparraldean. Oraindik ere borrokan ari dira Afganistan iparraldean.

Adibidea

Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko modua, bide militarra baino, bakebidea dela.

Aholkua

Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko modua, bide militarra barik, bakebidea dela.

Adibidea

Uztailen %0,1 igo da KPI Nafarroan.

Aholkua

Uztailen %0,1 igo da prezioen indizea Nafarroan.

Aholkua

Euskal ondareko hitzetan j idazten denean <y> ahoskatzen dugu:
Joan <yoan>, jaun <yaun>, jaio <yaio>, josi <yosi>.
Maileguetan <x> ahoskatzea onar daiteke:
Jertse <xertse>, ijito <ixito>

Aholkua

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herriak aipatzeko, izen ofiziala darabilgu. Telebistako pantailan beti idatziko dugu izen ofiziala. Euskaltzaindiak beste izen bat hobetsita badauka, bigarren aukera moduan erabili daiteke ahoz.
Lapurdik, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herriak aipatzeko, euskarazko izena darabilgu.

(TURRIA: ETB)

esaldi pasiboak, baina ez dira informazioa aditzera emateko modurik egokiak.

2-Egitura eta antolamendua

Kazetariak lehenik aintzat hartzen du testuak zein kokaleku duen albistegiaren barruan, eta zelan lotzen zaien albistegiko beste batzuei. Bigarrenik, eman beharreko informazioa kontakizun batean antolatzen du. Hirugarrenik, kontakizun horretako esaldi bakoitza ondo egin izatea zaintzen du. Aurkezleak, informazioa azaltzeaz gainera, albistegiari batasuna ematen dio, eta ikus-entzuleak gidatu egiten ditu. Estrategia ona da informazioa aditzaren inguruan antolatzea.

3-Bost koordinatuak

Nor, zer, noiz, non eta zergatik galderak erantzunez gero, istorioa

osorik kontatuta dagoela jotzen da. Albiste-testuetan ondo identifikatu behar dira gertakizunetako protagonistak. Askorekin nahikoa izaten da izena esatea, baina identifikatzeko modurik formalena kargua, lanbidea edo datu biografikoak gaineratzea da. Kazetariak balioesteekin eta iritziarekin lotutako hitzak saihestu egin beharko litzuke. Kirol talde bat aipatzean haren hiriaren edo lurraldearen izena erabiltzen badugu, euskarazko forma hartzen dugu.

4-Eduki nagusiak

Informazioa zehaztu egin behar da, datuz hornitu, ikus-entzuleek euren iritzia egin ahal izan dezaten. Inoren berbak jasotzen direnean, albiste-testuan gauza biak zehaztu behar dira: berbak eurrak, eta nork esan dituen. Albiste-tes-

tuetan, kontakizun bat osatzeko, nahitaezkoa da egoerak, bitartekoak, moduak eta abar azaltzea. Osterantzean, testuinguruaren berri eman gabe, testua sinopsi hutsa izango litzateke.

5-Ahoskera eta doinua

Esateko modua desegokia bada, komunikazioa zaildu egiten da. Kazetariak hiru mailatan jarri behar du arreta: banakako ahots eta hitzetan, hitz-multzoetan, eta esaldi eta testu osoetan. Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan Euskaltzaindiaren *Euskaraz batuen ahoskera zaindua* erabiliko da erreferentzia moduan. Testua ahots goraz esan ahala, kazetariak mezuaren esanguretaraz egokitzen ditu modulazioa, tonua, erritmoa, etenak eta enfasiak. Horrela, albiste-testuari zentzua eta batasuna ematen dizkio.

RTVEren mandatu esparrua onartu du Madrilgo senatuak, PPren bi akatsei esker

Herenegun Madrilgo legebiltzarra onartu zuen RTVEren mandatu esparrua. Kontratu horrek RTVEren zerbitzu publikoko helburuak finkatzen ditu bederatzi urtetarako. Atzo senatuan egin zuten bozketa eta hasiera batean kontrako boto gehiago espero zituzten. Baina PPko bi senatarik huts egin zuten botoa emateko orduan. Hartara, aldeko 115 boto eta kontrako 114 izan ziren (EAJko senatariek aurka bozkatu zuten). Eta senatuak mandatu esparrua onartu zuen. Horren bitartez, Espainiako Gobernuak RTVE korporazioarekin dotozen hiru urteetarako kontratu programa negoziatu ahal izango du. Neurrien artean TVEren publizitatea murriztea egon daiteke.

‘Peta-Zetas’ umorezko saioa hasiko da laster Antena3 katean

Jose Corbachok *Peta-Zetas* saio berria aurkeztuko du hemendik gutxira Antena3en. Azkeneko hamarkaden errepasoa egingo dute programan, umorea erabiliz. Kolaboratzaile talde batek garai bakoitzeko bideoak komentatuko ditu. Astero pertsonaia ezagun bat elkarrizketatuko du Corbachok.

Europako Batzordea Italiaren aurka, iragarki gehiegi emateagatik

Europako Batzordeak ekinza legalak hartuko ditu Italiako gobernuaren aurka, telebistan iragarki gehiegi onartzeagatik. Erabaki horrek eragina izango du Berlusconi Mediaset katean.